

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide, Aralarren bozeramaileak, indarrean den araudiaren babesean, “Bake Hezkuntza Planaren testu bateratuaren inguruan” hurrengo **INTERPELAZIOAREN ONDORENGO MOZIOA** aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

ZIOA:

Maiatzaren 7an kontroleko osoko bilkuran egindako interpelazioan galdetu genion Hezkuntza sailburuari azal zezan, “governuko ardura hartu dutenetik, nola landu den bake hezkuntza eskoletan eta bereziki zer egin duten biktimen gaia eskoletara eramateko”. Hezkuntza sailburuak emandako erantzunaren arabera, aurreko legegintzaldiko planak indarrean segitzen du, baina “Indarkeriaren legitimazioa kentzea eta bizikidetza demokratikoa (2010-2011). Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko hezkuntzako euskal planaren birformulazioa” deitu duten dokumentuak ez du jasotzen Bake Hezkuntza Plana osoa. Hori dela eta, interpelazioaren ondorengo hurrengo mozioa aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

INTERPELAZIOAREN ONDORENGO MOZIOA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez diezaiela Legebiltzarreko talde guztiei, ahalik eta denborarik laburrenean, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko hezkuntzako euskal planaren birformulazioaren eta indarrean dagoen Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko hezkuntzako euskal planaren testu bateratuaren berradorea, azalduz, zehazki zer den aurreko planetik mantentzen dena eta zer, aldatzen dena.

Gasteizen, 2010eko maiatzaren 10ean

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea**